

# Galtzaundi


Tolosaldeko Herri Aldizkaria

2013/3/8 | 379

©	Eider Olazar Elduaien eta Begoña Aristi
©	18.ez ko-ri-ka!
©	Emakumeen Mundu Martxako Plataforma
©	Koxk!: Super-elikagaiak?

Harituz  
Bertsoa saretuz





aldama\_tapia  
aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel\_943 650 375  
Faxa\_943 655 206  
gtolosa@aldamatapia.com  
www.aldamatapia.com

**SUPEREKO** Zure Tolosaldeako Super-a, orain OnLine

Zerbitzua eta kalitatea

<http://www.supereko.net>

Erosketak etxera eramango dizkizugu  
Eskerrik Asko

**ESPEZIALISTAK BEGIEN OSASUNEAN**

Ba al zenekien ikusmenaren azterketa lagungarria izango zaizula, **glaukoma, begi-lausoak** eta **begietako nekea** diagnostikatzeko?

**IKUSMENAREN HILEA**

Multiópticas-en begien azterketa egingo dizugu, konpromezurik gabe.

**MULTIÓPTICAS**  
lehen zerbiztu optikoetan

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea. 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Telefonoa: 943 655 004  
Faxa: 943 654 983  
e-posta: erredakzio@galtzaundi.com  
Webgunea: www.galtzaundi.com  
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.  
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Ione Gorostarzu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Bidera Publizitatea  
661 678 818 • aetxaniz@bidera.eu  
Banatzaileak: Olatz Garmendia  
Juankar Arregi  
Zuzentzailea: Nora Olano  
Maketazioa: Galtzaundi  
Diseinua: Zigor Agirrezabala  
gortik  
Azala: Galtzaundi  
Inprimategia: Antza.  
Tirada: 4.500 ale  
Lege gordailua: 55-906/91  
Franko Itundua: 37/94

GALTAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Amezketak, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa gizarte ekintza

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.



Erreportaia:  
Harituz, Bertsoa saretuz

Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkargunea bertsolaritza ulertzeko aparteko modua da. Bertsolariez gain, eskualdean bertsolaritzarekin harremana duten norbanako guztien elkargunea izatea du helburu. Bertsozale Elkartearen eta bertso eskolen arteko bide berria, hain zuzen ere. Elkarguneko partaide diren Mikel Artolak (Alegia) eta Imanol Artolak (Amezketak) egitasmoaren berri eman diote Galtzaundiri.

8-11. orrialdeak

Huyck Wangner (Perot) Zizurkilgo enpresako 75 langilek hilabete luze daramate greba mugagabea. Kontsulta epea emaitzarik gabe igarota, datozen egunotan iritsiko zaizkien kaleratze gutunei erantzun judiziala eman asmo dute. Helburua enpresa erregulazio espedientea baliogabetzea da.

Elkarriketa: Mikel Zabaleta eta Asier Moreno 14-16 orrialdeak

🌀	Iritziaren leihoa: Eider Olazar Elduainen eta Begoña Aristi	4-5
🌀	18.ez ko-rrika!	6-7
🌀	Emakumeen Mundu Martxako Plataforma	12-13
🌀	Koxk!: Super-elikagaiak?	17
🌀	"Bihotza, burua, eskuak, sentitu, pentsatu...Ahora!"	18
🌀	Kmk'13: eskerrik minenak, Ahora!	19

## Kabi Alairi proposamena



Eider Olazar Elduaie  
Tolosaldeko Bilgune Feminista

Martxoak 8, Emakumeon egunaren jiran, ohiko adierazpenak alde batera utzi eta proposamen zehatz batekin nator. Ez da denbora asko lñauteiak pasa zirela eta oraindik buruan daukat gure herriko festa kuttunei hasiera eman zitzaieneko unea, ostegun gizeneko txupinazoaz ari naiz. Irudi esanguratsua eta mediatikoa, herritarrak protagonista diren Tolosako jai nagusia lehertzen den unekoa; eskualdeko hedabide guztietan tarte nagusia hartu zuen irudia eta beste zenbait hedabideetan ere bere isla izan zuena. Ez zen plaza zaharreko bizilagunen dekorazio faltagatik izango baina argazki hari, beste behin ere, kolorea falta zitzaion. Emakume bat bera ere ez zen ageri udaletxeko balkoi nagusian, aurrez esan bezala, herritarrak protagonista diren Tolosako jai nagusiaren momentu sinboliko nagusian.

Niri pertsonalki izugarritzko pena eta tristura eman zidan. Eta zergatik ez, baita amorrua ere. Egungo errealtatea alda dadin egunerokotasunean borrokan dabilenarentzat, aitor dezadan, min egiten dute horrelako irudiek. Nik uste ez dagoela soberan guztiok gure ingurune-ra begiratu eta ariketa egitea.

Herritarrez gain, Tolosako lñauterietan protagonista nagusi bat baldin badago, horiek txarangak dira, zalantzarik gabe. Nork ez ditu etxeko eskailerak korrika jaitsi txarangara batzeko edo nori ez dio ordu txikitan etxeko bidea alaitu txarangaren batek? Arrazoi historiko-kultural -sozialengatik ordea, oso eremu

maskulinoa da txaranga, gizonen osatuta daude gehienak eta emakume gutxiak parte hartzen dute hauetan, nahiz eta hemen ere ari diren urratsak ematen. Aurten Kabi Alairi Po-ca-Tripa txaranga izendatu du lñauteziale Kuttun, txaranga honen 50. urteurrena dela eta. Eta ibilbide luze horrek merezi bezala, txaranga honi egokitu zitzaion ostegun gizeneko txupinazoa botatzea. Txarangen izaera maskulino horrek ordea, bere isla izan zuen udaletxeko balkoian eta esan bezala, emaitza, emakumerik ez zela ageri festa nagusia dugun unean. Sinbolikoki bada ere, karga handia duela honek uste dut.

lñauteiak gizon eta emakumeonak dira, horretan ez dut uste zalantzarik dagoenik. Kontua da, oraindik orain, eremu publikoa oso gizonena dela eta pribatua oso emakumeena. Eta askotan zail gertatzen dela pribatuan, ezkutuan dagoena azaleratzea. Horregatik, proposamen bat egin nahi diot Kabi Alairi. Datorren urteko lñauterietan izenda ditzala lñauteziale Kuttun Tolosako jostunak eta izan daitezela eurak txupinazoa botako dutenak. Osoki ez esate arren, hein handi batean emakumeek osatutako kolektiboa da eta isilean, oharkabean pasatzen da beren lana, aldiz, ezinbestekoa da lñauteriei egiten dieten ekarpena. Nik uste, errekonozimendu polita litzatekeela, merezitakoa, eta gainera, lan bikoitza egingo genukeela, batetik, isileko lana azaleratu eta errekonozituz eta bestetik, ostegun gizeneko irudi nagusiarik kolorea emanez. ©

## Ondoan ez badugu nahi, zertarako egin?



Begoña Aristi  
EHNE

Hilabete honetan sendagile bat entzun dut errausketa eta osasunaren arteko erlazioaz hitz egiten. Datuak besterik ez ditu eman. Haren iritziaren arrastorik ere ez da izan eragina azaltzerakoan.

Errauste plantek ingurunean duten eragina zein den zehaztuz hasi da: tximinietatik ateratzen den ke horretan, nahiz eta filtroak jarrita eduki, mikro-partikula deritzonak ateratzen omen dira, airearen bidez urrutira joan daitezkeenak. Horiek lurrean edo uretan erortzeko daitezke. Landareek xurgatzen dituzte eta landare horiek animaliek jaten. Animaliak eta landare horiek ere guk erabiltzen ditugu gure burua elikatzeko. Era berean, errauste prozesuan ur kopuru handiak erabiltzen direla esan du eta errauste planta horretatik ateratzen den ura toxikoa dela. Ura, lurra eta airea. Denean eragiten du.

Guk, baseritarrok, lurra lantzen dugu, herritarrak elikatzeko. Mimo handiz tratatzen ditugu gure baratzak, gure animaliak... Ez dugu inork pozoitzerik nahi, ikusten ez ditugun mikro-partikula, toxina eta abarrek: ez gure baratzak, ez gure landareak, ezta gure bizilagunak ere. Ez dugu errauste plantarik nahi gure inguruan.

Baina baieztapen horrekin batera, beste galdera bat datorkit burura: inork nahi al du errauste planta bere etxearen, herriaren, auzoaren ondoan? Egia esan, ez diot inori baiezkorik aditu. Ez badugu horrelakorik nahi osasunean eragiten digulako, zergatik egin? Utz ditzagun alderdikeriak alde batera sortzen dugu zaborra ez delako kolore baten edo bestekoa, herritar guztiona baita.

Ez dakit zein izan daitezkeen

zaborra gaika biltzeko modurik egokiena, atez atekoa, edukiontzi marroia... baina soberan dakigu zer ez dugun nahi. Zergatik ez ditugu denon artean proposamenak egiten eta zabor biltzeko egiteko modu bat adosten, alderdikeriak albo batera utzita? ©

# ko-rrri-ka! 18.ez

Jada hemen da. Badator Korrika! Aurten Korrikaren 18. edizioa ospatuko da "Eman euskara elkarri" lelopean. Bi urtez behin Euskal Herria zeharkatu eta euskarari babesa ematen dion martxa aurten martxoaren 14tik 24ra ospatuko da, Andoain eta Baiona bitarteko ibilbidea burutuz. Tolosaldeak lehen egunean hartuko du euskararen lekukoa.

Erredakzioa



behar duelako. Elkarri hitz egiteko hizkuntza. Elkar entzuteko eta ulertzeko, horrela baieztatzen du antolatzaile lana burutzen duen AEKK. Are gehiago: "dakienak ikasi nahi duenari irakatsi, ulertzen duenari irakatsi, ulertzen duenari erabil-tzeko aukera eman, agintariak herritar orori ikasteko bideak erraztu... Denok dugu zere-sana eta zeregina. Euskara denona da eta denontzat izan behar du. Kohesiorako lehen-gaia eta tresna".

Omenduak

Korrikak zabaltzen duen mezua "euskara euskal herri-tarron elkarbizitzarako gakoa dela" izanik, oraingoan euskal-duntzen eta alfabetatzen ari

diren milaka eta milaka per-sona omenduko ditu. Tolo-saldean horren adibide ugari ditugu: egunero-egunero Ai-tzol Udal Euskaltegira doazen ehunka ikasleak, hizkuntza-eskoletan matrikulatutakoak, AEKKo euskaltegiko ikasleak, Galtzaundiko mintzalaguna egitasmoaren partaideak, ikastetxeetako gurasoen min-tza-praktika taldekoak, Petra Elser-ek gidatutako Banaiz Ba-gara elkarteko jatorri ezberdi-neko norbanakoak, Anoetako AISA taldeko partaideak eta beste dozenaka eta dozenaka adibide anonimo. Guztiek eus-kara elkarbizitzarako giltzatzat ikusten dutelako omendu sentitu daitezke aurtengo Ko-rrikarekin.



## Korrika Kulturala Egitaraua

### Ibarra

**Martxoak 9, larunbata.** Korrika Eguna. 17.00-20.00. Haur jolasak, txapel jaurtiketa, txaranga Loatzo Musika Eskolaren eskutik, pintxo salmenta eta erromeria Alur Dantza Taldearen eskutik. Korrikako materiala salgai egongo da.

**Martxoak 14, osteguna.** 18.00 Plazatik Ibarra sarrera arte kalejira dultzaineroekin.

### Amezketeta

**Martxoak 15, ostirala.** Bideo emanaldia "Bidaia Intimoak". Kultur Etxea, 20.00

**Martxoak 17, igandea.** Korrika hamaiketako, musikarekin girotua. Herriko Plaza, 12.00-14.30

**Martxoak 22, ostirala.** Korrika Txikia herrian zehar

### Alegia

**Martxoak 14, osteguna.** Zagiardoa. Herriko Plaza, 21.00

### Tolosa

**Martxoak 14, osteguna.** Korrika Barrikotea. Triangulo plaza, 20.00



**Mahala**  
bertan elaboratutako  
**esneki eta txerriki**  
natural naturalak  
www.mahalanaturala.com | 943 67 07 24

**CDI**  
Informatika  
Osagaiak  
Desarrolloak  
Instalakuntzak  
GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL: 943 650 199  
TOLOSA (GIPUZKOA) FAX: 943 653 916

**IGO**  
Karga eta goi lanetarako grua  
www.igogrua.com  
Mobil zkia. 670 67 24 62

**Arteka**  
ESKULANAK  
Nafarroa etorbidea, 10  
TOLOSA  
Tel.: 943 655 577

**R A K U**  
Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

enpresa katalogoak

aldizkariak  
logotipoak

liburuak

publizitate komertziala  
kartelak

egutegiak  
bannerrak

**antza**  
komunikazio grafikoa

Zirkuitu Ibilbidea, 2 / 2. pabiloia · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 370 738 / Faxa: 943 372 226 · info@antza.com · www.antza.com



# Harrituz

## Bertsoa saretuz

Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkargunea bertsolaritza ulertzeko aparteko modua da. Bertsolariez gain, eskualdean bertsolaritzarekin harremana duten norbanako guztien elkargunea izatea du helburu. Bertsozale Elkartearen eta bertso eskolen arteko bide berria, hain zuzen ere. Elkarguneko partaide diren Mikel Artolak (Alegia) eta Imanol Artolak (Amezketeta) egitasmoaren berri eman diote Galtzaundiri.

Naiara Roldan de Aranguiz

Tolosaldea bertsolari eta bertsozaleen sorlekua izan da aspalditik eta baita izaten jarraitu ere. Lan horretan lagundu dutenak, ezbaierik gabe, tokian tokiko bertso-eskolak dira. Hala ere, Harituzetik dioten bezala, "bertso-eskola hauek piztu eta itzali dabilta azken urteotan". Eta egoera horri erantzuna ematea da, hain zuzen ere, Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarguneari bilatzen duena.

Horrela laburbiltzen du Mikel Artolak Harituz elkargunearen sorrera: "gabezi batzuk ikusten genituelako sortu da Harituz. Bertso eskolek gora-behera asko izaten dituzte, herri txikietan ez gara gauza denbora luzean irauteko. Herri txikietan normalean

pertsona batek ardura hartzen du baina behin pertsona hori nekatzen denean, erreleboa lortzea zaila izaten da. Askotan jende gutxi izaten delako edo jendea aldatu egiten delako baina segituan erori egiten da dena". Honako deskribapenaren arrazoietakoa bat irakasle faltarena izaten da eta, besteak beste, egoera horri erantzuna emateko sortu nahi izan dute Harituz elkargunea.

Bertso-eskoletan fokatu nahi dituzte indarrak elkargunetik: "helburu orokorra herri bakoitzeko bertso-eskola ahal den autonomoena izatea da". Eta ildo horretatik bertso-eskolen funtzioa asteroko martxatik harago joatea ere bilatzen dute elkargunetik: "bertso-eskolak bestelako funtzioak ere badauzka: herriko antolakuntzan laguntzea, antolatzea eta inplikatzea".

Bertso-eskolez mintzatzerakoan hiru bertso-eskola mota dira kontuan hartzekoak: umeena, gazteena eta 16 urtetik aurrerako helduena. Azken honen adibide dira Tolosako eta Amezketako egitasmoak: "bertso-eskolaria doan bakoitzak helburu ezberdinak ditu; oholta gainera igotzea, lagun artean moldatzeko modua bilatzea edo bertsoak irakurtzen ikastea", dio Imanol Artolak.

Ildo honi jarraituz, Mikel Artolak bertso-eskolen egitekoa azpimarratu nahi izan du: "bertso-eskolak dira eta ez bertsolari-eskolak. 20 lagunetik 20 bertsolari ez dira ateratzen, helburua ez da hori gainera. Umei bertsotan irakasten zaie baina gogoan izanik hortik geroko bertsozaleak eta bertso ekitaldiak antolatuko dituztenak aterako direla. Hor dago hazia". Horregatik, eredu honi

jarraipena ematea da Harituz elkargunearen ideia.

### Partaideak

Elkargunea nortzuk osatzen duten da erantzun beharreko hurrengo galdera. Hedapenean eskualdea da Harituzek bere gain hartzen duena, hau da, Tolosaldea. Eta tartean Tolosa gainerako herri txikiekin batera elkarguneari presente egotea "estrategikotzat" ikusi dute bertako partaideek. Kideek bailara guztiko herriak barruan egotea bilatzen badute ere, momentuz Harituzen baitan Alegia, Amezketeta, Abaltzisketa, Anoeta, Altzo, Villabona, Tolosa, Andoain, Asteasu, Zizurkil, Larraul, Orendain, Ikaztegieta, Ibarra eta Berastegi daude. Hala ere, herri bakoitzak inplikazio maila ezberdina du.

Honako herri dagokionean, baina norbanakoei

# Bertsoa bada herri guztiak beregan dituen plaza denak elkartu ta saretzea bilakatu da jolasa, aldapa gora ta behera dabil koloretako matazazuk ere josi nahiko bazenu hartu ezazu ta pasa!

begira, zer nolako profleko pertsonak biltzen dira Harituz elkargunean? "Asko azpimarratu nahi izan dugu ez dela bertsoan ari den jendearentzat bakarrik, bertsozaleen elkargunea da", dio Mikel bertsolariak. Imanol bertsozaleak ordea bere esperientziaren berri zabaldu nahi izan du: "bertsoan 16 urte arte aritu nintzen baina geroz ez dut bertsoan behin ere egin. Elkargunearen helburua ez da bertsoan dezente egiten dutenak bakarrik elkartzeko baizik eta bertsoetako zaletasuna daukagunak eta bertsoan egiten ez dugunak ere biltzea. Guk ere gure ekarpena eman eta jasotzeko". Norbanako anonimo askori aurpegi ezagun ugarire ere gehitzen zaizkie Harituzen. Horien adibide dira Amaia Agirre, Iñaki Murua, Felix Irazusta-

barrena, etab. Helburua azken finean, Mikelek aitortzen duen moduan, "guztiok gure pusketatxo hori edukitzea da".

**Egitekoa**  
Funtzionamenduari dagokionez, talde zabala eta talde eragilea dira Harituzen muina osatzen dutenak. Talde zabalen baitan, momentuan 65 lagun biltzen dira eta e-maillez funtzionatzen dute, hilean behin informazioa elkarri helaraziz. Bestetik, talde eragileak deiturikoa dago, "antolakuntza maila eramango duena". Bertso-  
eskolen funtzionamendua eta aparteko saio ezberdinen antolakuntza dagokio talde honi. Talde eragilearen helburua bertan ahalik eta herri gehien ordezkaturik egotea da. Izan ere, Mikelek argi dauka Haritu-

zek izenari men eginez elkar-gune izatearen beharra: "hau elkargune bat izatea nahi dugu eta ez elkarte bat, elkartzeko toki bat izateko jarri genion izena, elkarri laguntzeko, eta ez dena zentralizatzeke". Talde eragilea bi astez behin elkartu eta hilean behin talde zabalera bidaltzen dio informazioa.

Honela, 2013. ikasturteari begira, urtariletik ekainera bitartean, hilero herri ezberdin batean ekitaldi bereziren bat antolatzeko ardura hartu du Harituzek. Urtarrilean, Berria egunkariak Villabonan antolatutako ikuskizunean parte hartu zuen; otsailean, Abaltzisketako Larraitz-Gain jatetxean bertso-kantu afaria ospatu berri du eta hurrengo hilabetetan Amasak, Andoainek, Anoetak eta Tolosak beste horrenbeste izango dute.

## Artxipelagotik sarera

Tolosaldeko eskualde bertsozalea dela esan izan da eta horrela baieztatu dute Mikel Artolak eta Imanol Artolak: "nahiko normala da eskualde bertsozalea izatea, eskualde euskalduna baita, baina naturaltasun horretan ez da segurua horrek irautea. Gipuzkoan bertsolariak bere kasa funtzionatzen duela pentsatu izan da eta hori ez da horrela". Eskualde bertsozalea izan bai, baina duen gabeziak, Mikel Artolaren hitzetan, "antolakuntza mailan ahul ibiltzea" da. "Ez bada zerbait egiten, bertso-eskoletan jenderik biltzen ez bada, ekitaldietako publikoa jaitziko da eta bertsolariak ez da apenas aterako. Eskualde bertsozalea izateak, hainbeste ez izatera azkar pasa gintezke".

Egoera honen aurrean, Harituz elkargunearen helburua sarea bihurtzea da; "sare izaera eman nahi diogu martxan dagoen artxipelago horri". Honela argudiatzen du Mikel Artolak: "funtzioa hori da, sare bat izan eta ondoren armiarma bihurtzea, talde eragileak ahalik eta hanka gehien izan".

Harituzek bere burua Bertsozale Elkartean eta bertso-  
eskolen artean kokatzen du: "beheran, bertso-eskoletan asteroko martxan dabilen jendeak burua jaso eta eskualde mailako begiratu bat izatea da gure asmoa", bertso-  
eskolaria zuzendurik. Eta Bertsozale Elkarteari begira ordea, "elkartea horren beheraino jaitzi behar ez izatea da gure nahia". Azken fi-



nean, "Bertsozale Elkartean eta eskualdeko bertso-  
eskolen artean beste geruza bat izan nahi dugu".

## Hiru lan esparru

Elkargunearen helburua martxan ari diren bertso-  
eskolaria indartu, ez dagoen baina gogoan dagoen tokietan sortzen lagundu, eta Tolosaldeko bertsozaleen bultzada



latzeari eta antolatzen diren horiei zabalkunde emateari egiten dio erreferentzia. Transmisioaren baitan, bertso-  
eskolaria kokatzen dira, bai umeenak, bai gazteenak eta baita helduenak ere. Ikerkuntza-jakintza alorrak, bestelako lanak ekarriko dizkie Harituz elkarguneko partaideei: "eskualdean bertsolariarekin harremana duten edo izan duten norbanakoen fitxak osatuko ditugu".

Hurrengo urteotako ekitaldien artean eskualdeko bertsolariaren urteurren garrantzitsu bati erantzuna eman nahi dio talde honek; Pernando Amezketarraren jaiotzaren 250. urteurrena ospatuko baita 2014. urtean. Momentuz ordea ez dute aurreraterik ekitaldi berezi horrek hartuko duen forma-txapelketa, bertso-bilduma, bertso-antzerkia...

## Bertsolari eta bertsozale berrientzat irekita

Tolosaldeko bertsolari indartu nahiarekin, eskualdeko herri guztiak ordezkaturik egotea bilatzen du Harituzek. Nahi beste bertsolari zein bertsozale bildu daitezke egitaspora, "erabat irekita dago", azpimarratu nahi izan du Mikel Artolak. Harremanetan jartzeko bideak ondorengoak dira: harituz.bzt@gmail.com edo facebook.com/harituz. bertsozalealdea. Partaide berriari informatzeko bideak bidaliko diote eta "inplikazio maila norbere esku egongo da". Bertsoa saretuz jarraitzeko bideak Harituzenak. ©

**Beti Nahi**  
gaitza  
Garaian garaiko janariak eta arraikiak bereziak  
Tel.: 943 671 920  
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

**IG GORRI**  
Paper manipulaziorako makina eraikuntza  
Konponketa eta mantentimenduak  
Apata industrialdea.  
Baratzondo D 26. Ibarra  
Tel.: 943 671 590.  
Faxa: 943 673 916

**SANZ**  
arraindegia  
Tel.: 686 98 21 74  
943 65 17 85



# “Egoera honen hasiera badakigu zein den baina bukaera ez dago idatzita”

Huyck Wangner (Perot) Zizurkilgo enpresako 75 langilek hilabete luze daramate greba mugagabeen. Kontsulta epea emaitzarik gabe igarota, datozen egunotan iritsiko zaizkien kaleratze gutunei erantzun judiziala eman asmo dute. Helburua enpresa erregulazio espedientea baliogabetzea da. ELAko metal arduradun Mikel Zabaletak eta ELAko delegatu eta Huyck Wangner-eko langile Asier Morenok borrokaren berri eman dute.

Naiara Roldan de Aranguiz

Zizurkilgo fabrika Perot y Cía. enpresaren oinordekoa da. Egun Huyck Wangner alemaniar multinazionalaren esku dago, herrialde ezberdinetako filialak bezala. Produktioari dagokionez, Zizurkilgo ezarritako fabrikak metalezko ehunak ekoizten ditu. Iragan urtarrilaren 21ean Huyck Wangner-ek langileei enpresa ixtearen erabakia berri eman

zienean greba mugagabeari ekin zioten bertako beharginekin: kontzentrazioak, enkarteladak, manifestazioak, asanbladak, kotxe-karabanak, elkarrizketak, enpresako atetan akanpada iraunkorra hilabete luze honek emandakoa da.

Urtarrilaren 21ean Huyck Wangner enpresak itxiera erabakia jakinarazi zuenetik zer nolako pausoak eman dituzue?

Mikel Zabaleta: Urtarrilaren 21ean bertan enpresan asanblada egin genuen, enpresak mahai gainean zer nolako neurria jarri behar zuen jendeari azaltzeko. Momentu horretatik aurrera greba mugagaberako deialdia egin genuen. Tramitea

egun horretan bertan hasi eta bozketa egin zen. Bozka guztiak baiezkoak izan ziren, txuri bat izan ezik.

Greban hasi eta dinamika bat martxan jartzen hasi ginen: asetero bildu, asteroko helburuak finkatu, taldeka banatu, erantzukizunak banatu eta borrokarako moldean sartu ginen.

bildu eta oso modu antolatuan eguneroko lanak banatzen dituzte taldeka, taldeko arduradunekin: zer egin behar den, epeak, lekuak... Lan bikaina egiten ari dira. Auzi askotan zoritxarrez ez dugu borrokarako gaitasun hori ikusten. Huyck Wangner enpresako langileen kasuan gaitasun handia dago, borroka oso zaila

rrilaren 18an egun osoan zehar kamioiak sartu eta atera aritu ziren, biltegian zegoen balio handiko material ekoiztua enpresatik atera zuten.

M. Z.: Enpresak erantzun bat egotea espero zuen, badaki erabakia guztiz irrazionala dela eta horregatik atera zen produkzio

Produktioari begira, tela modernoago batzuk egiteko makineria ekarri baina produktu horiek ekoiztea debekatu zen. Markatuari begira, Espainiar Estatuko bezeroei mugatu zen; Frantziar Alemaniako fabrikek baino ezin zuten saldu, enpresaren erabakien arabera. Merkatua mugatzeaz gain, produktua ere mugatu dute, prezioak konpainia barruan oso modu desorekatuan zabaldu dituzte. Estrategia honen helburua Zizurkilgo enpresari ahalik eta zukurik gehien ateratzea izan da. Hala eta guztiz ere, bertako fabrikak onura ekonomikoak ditu.

Onura ekonomiko horien aurrean, zein da enpresaren itxieraren zergatia?

M.Z.: Haiek diote makineria oso zaharkituta dagoela eta inbertsio handi bat egin behar litzatekeela. Euren inbertsio datuak puztuta daude. Ez da 19 eta 24 milioi euro arteko inbertsiorik behar enpresa honek errentagarritasuna emateko, gaur egun errentagarria baita.

Multinazionalaren nahia Europan duten plantetako bat ixtea da. Ekuazio horretan Zizurkilgoa da ixten merkeena. Erreforma laboralari esker eta kanpoko soldadak hemengoak baino altuagoak direlako merkeago ateratzen zaie hemengo itxi eta produktioa kanpora eramatea. Horrela, 19-24 milioi euroko inbertsio aurreikuspen horretan, Italiako fabrika hona ekartzea legoke. Hau da, fabrika bakoitza itxiz gero besteetan zer nolako inbertsioak egin beharko liratekeen aurreikuspena egin dute. Ekuazio eta estrategia horretan gu zerrendan azkenak gara. Hemengo langileak kaleratzeko orduan merkeenak dira.



Borroka honek landu beharreko alor ezberdinak ditu: sozializazioa, instituzioekin bilerak, alde juridikoa, alor ekonomikoa eta enpresarekin negoziaketa. Taldeka antolatu gara.

Langileek borroka honetan elkartasuna erakutsi dute.

M.Z.: Zoritxarrez enpresak egoera horren gaizki jarri du erreza dela denak elkarrekin egotea. Ez da zalantzarako aukerarik egon; horren bat-batekoa, horren baldintza eta forma txarretan egin da, denak elkartu garelara. Langileek argi daukate zerbait duina ateratzekotan bide bakarra honakoa dela.

Bertako langileak gazteak dira, oso elkartuta daude, eta lanerako prest daude. Egunero

bada ere, jende askok pentsatzen zuena baino joko zailagoa planteatu diogu enpresari.

Enpresak itxieraren erabakia jakinarazi aurretik ordea, pauso ugari eman zituela jakin duzue orain.

Asier Moreno: Itxiera jakinarazi aurretik bi aste lehenago, enpresak bi biltegi ireki zituen. Lehena Bartzelonan, nazioarteko portutik gertu, eta bestea, Irunen, Europara begira. Orduan, Zizurkilgo enpresako biltegian genuen materiala kamioetan sartu eta eramaten hasi ziren, hasieran ez zuen atentziorik deitu. Langileok bilerara deitu gintuenerako, Zuzendariak bertan zegoen produkzioa ateratzeko agindua zuen. Urta-

guztia bertatik. Horretaz gain, instalazioak babesteko segurtasun enpresa pribatu bat ekarri zuten, sarrera debekatu zigiten, bertako zuzendaritza bota zuten, Donostiako abokatuak kaleratu zituzten eta Madrilgo abokatu batzuk hartu dituzte... Bazekiten erantzun bat egongo zela, jendeak ez zuela ulertuko, mingarria izango zela.

Horretaz gain, sakeo egoera bat eman da 2010. urtetik hona. Zizurkilgo fabrikatik multinazionalera 5.300.000 euro baino gehiagoko diru-mugimenduak egin dira. Mugimendu hauek mailegu eran egiten ziren, hemengo fabrikak multinazionalari dirua maileguan utzi baina gero zorra barkatzen zion, azken finean dirua oparitzen zion.





Huyck Wangner enpresaren asmoa 81 langiletik 75 kaleratzea da. Zein da erantzuna?

M.Z.: Borrokan ari gara eta gure helburu nagusia enplegu hori mantentze da, nola edo hala. Hau ez da bukatu, gure helburu nagusia hemen enplegua defendatzea da. Enpresari gauzak oso gaizki jartzen badizkiogu, oso garesti ateratzen bazaio langileen kaleratzea, zerrendan azkenak ez ginateke egongo. Itxaropen hori mantentzen dugu. Egoera honen hasiera badakigu zein den baina bukaera ez dago idatzita eta guk beste bukaera bat eman nahi diogu honi.

Eta gainerako 6 langile horiek zertan dira? Zizurkilgo fabrika itxita dago?

A.M.: Gu konturatu gabeko beste trikimailu bat izan da. Donostiako Antiguu auzoan enpresak beste bulego txiki bat ireki zuen, delegazio komertziala deiturikoa eta han jarraitzen dute 6 langile horiek, guztiak komertzialak dira. Haiek ez dute greba mugagabea errespetatu, normalki joaten dira lanera, ez dute mobili-

zazioetan eta beste ekitaldietan parte hartu.

M.Z.: Enpresaren nahia delegazio komertzial txiki hori mantendu eta gainerako guztia suntsitzea da.

Tolosaldeak babesa erakutsi al dizue?

A.M.: Alde horretatik oso pozik gaude. Eskualdeko herrietako udaletxeek babes handia erakutsi digute, laguntzeko nahia adierazi digute. Manifestazioak oso jendetsuak izan dira eta jendearen babesa ikusi dugu bertan.

Ibilbide luzeko enpresa batez hitz egiten ari gara. Aurreko belaunaldietako langileek zer diote egungo egoeraren aurrean?

M.Z.: Beste delegatu batek esaten duen bezala, Perot deiturikoan laugarren belaunaldia ari da lanean. Kaleratuen artean aita-emeak badira eta baita senar-emazteak ere.

Ibilbide luzeko enpresa da, inguruko jendeak hemen egin du lan eta askotan familia bereko laugarren belaunaldira iritsi da. Inguruko jende askoren ar-

tean, enpresa honek lotura sentimentalak dauka, jende askok lan-bizitza osoa bertan egin du, erreferente izan da. Jende asko horregatik batu da borrokara, enpresa bertatik bertara ezagutu duelako. Ongi doan ibilbide luzeko enpresatzat ikusten dute.

Gaur egun zoritxarrez kasu asko ikusten da, enpresa gaizki egon eta ateak itxi behar izatea baina hemengoak bestelakoa da, aurreikuspenei begira itxi nahi dute. Aurreikuspenak ez dira objektiboak, ezin dira probatu. Multinazionalak nahi dituen aurreikuspenak jar ditzake mahai-gainean. Jendea ohartu da eraso hau ez dela beste edozein bezala, hau gordinetakoa izan dela.

Urtarrilaren 28an greban hasi eta hilabete bete berri duzue greba mugagabe egoeran. Nola egiten zaio aurre greba egoerari, egunerokotasunari, alor ekonomikoari?

A.M.: Ausardiak, ez dago besterik. Aurrera begira, lanera joan nahi dugula adieraziz eta gure helburua Huyck Wangner enpresa berriro irekitzea dela

buruan izanik. Borroka horretan gaude eta bide horretan segituko dugu, ez dut beste bukaerarik ezagutzen.

M.Z.: Ekonomikoki ere bada-go abantaila txiki bat. Langile gehienak -%90a- ELAn afiliatuta daude eta sindikatuan erresistentzia kutxa deituriko borrokarako tresna dugu. Langileek horrelako borroka batean iraun dezaten erabiltzeko dago.

Kontsulta epea amaitu berri da eta jarraian langileen kaleratze gutunak iritsiko dira. Zein izango da eman beharreko hurrengo pausoa?

M.Z.: Modu grafiko batean esanda, jokatzeko ari garen partidu bat da, bigarren partearen orain hasiko da. Lehen partearen kontsulta epea izan da, modu arrazoitu batean, borondatea mahai gainean jarriz, bi parteak adostasun batera iritsi ginezkeen baina enpresak ez du inolako borondaterik azaldu, bere plan estrategikoa bestelakoa izan da.

Epe hori amaituta bigarren partearen hasiko da orain, kaleratze gutunak jasotzerakoan. Hortik aurrera salaketak epaitzian jarriko ditugu, Huyck Wangner enpresaren Enplegu Erregulazio Espedientearen baliogabetzea eskatuko dugu. Gure helburua prozesua atzera botzea eta enpresa berriz martxan jartzea da.

Beste alde batetik, auzia gizarteratzen jarraituko dugu, ahalik eta indar gehien metatzeko eta indar guzti horrekin administrazioetan presionatzeko, helburu bakar horretara bideratuz: etorkizunean enpresa berriz ere zabalik egotea.



Amaia Etxetxipia  
Nutrizio aholkularia

## Koxk! Super-elikagaiak?

Gai honekin lotuta, gaur antioxidanteen inguruan arituko gara. Antioxidanteak, gorputzeko zelulak erradikal askeen aurrean babesten dituzten molekulak dira, hauek kaltegarriak baitira. Erradikal aske hauek, adibidez, alkohola eta tabakoaren

ketik datoz, baina gure organismoan ere modu normal batean sortzen dira metabolismo prozesuaren ondorioz. Gorputzean erradikal aske gehiegi badaude, higadura oxidatibo bat ematen da eta honen ondorioz lesio zelularrak sor ditzake eta honen eraginagatik adinarekin lotutako gaixotasunak ager daitezke, minbizia, diabetesa eta kardio-patiak bezala.

Kontutan eduki behar da, ez bakarrik elikagai batek duen antioxidante kopurua, baita ere xurgatzen den kantitatea, ez baitira denak modu berean aprobetxatuko, hau da, beraien biodisponibilitatea faktore desberdinen menpe dago: antioxidante bakoitzaren egitura kimikoa, elikagaiaren barruan zer

egoeratan kokatuta dagoen edo elikagai hori gordinik edo egosi-ta dagoen, adibidez.

Gure elikaduraren bitartez iristen diren antioxidante gehienak, azido askorbikoa, E bitamina, karotenoide eta polifenolak dira.

Azido askorbikoari dagokionez, C bitamina bezala ezagutzen dugu ere eta gure organismoan antioxidante bezala oso funtzio garrantzitsuak betetzen ditu: kalte oxidatiboaren aurrean proteina, lipido, koipe, karbohidrato eta azido nukleikoak (ADN eta ARN) babesten ditu. Nutrizioari dagokionez aipatu dezakegu beste ugaztun askok C bitamina sintetizatzen gaiten direla, baina guk ezin dugunez, elikagaien bitartez lortu behar dugu. Beste funtzioen artean, kolagenoa sintetizatzen beharrezkoa da (odol hodi eta tendoiaren egitura osagai bat). Baita ere noradrenalina eta karnitinen sintesia funtzio garrantzitsuak betetzen du (azken hau, lipidoen metabolismo-tik energia lortzeko beharrezkoa da). C bitaminaren urritasun

gogorak eskorbutu gaixotasuna sortzen du. Bitamina honen eguneroko gomendioak askoz altuagoak dira erretzaileen kasuan, noski, hauengan estres oxidatibo askoz altuagoa delako. Orokorrean, fruitu eta barazkietan topatzen da, baina kopurua oso aldakorra izan daiteke espezie eta barietatearen arabera. C bitamina hau hobe da beti elikagaien bitartez hartzea, beste nutriente asko ere iritsiko zaizkigulako berarekin batera, zuntza eta mikromineraletan.

Hona hemen zenbait super-elikagai horien adibideak:  
-Erremolatxa: bihotzerako osasuntsu den super-elikagai bezala ezagutzen da. Dirudie-nez, bere nitrato kopuru altuak gure organismoan oxido nitrikoan bihurtzen dira eta honek arteria-tentsioa eta odolaren koagulatzen tendentzia murrizten laguntzen omen du.

-Kakaoa: flabonoide izeneko konposatu batzuk ditu eta badi-rudi hauek odol hodian elastikotasuna handitu eta arteria ten-

Azken urte hauetan "super-elikagai" hitza entzuten da elikadura eta osasunaren inguruan. Kontzeptu honekin nolabait elikagai konkretu batzuei zahartzaroari eta gaixotasunei aurre egiteko propietateak ematen zaizkie. Orokorrean, nutriente kantitate handiko elikagaien definizioa izango luke termino horrek, hau da, bitamina, mineral, zuntza, antioxidante eta fito-nutriente ugari dituen. Esan daiteke, elikagai talde guztien artean fruitu eta barazkiek betetzen dutela ezaugarri hori.

tsioa jaisten laguntzen dutela. -Izokina: omega-3 izeneko gantz-azidoak izokina eta beste arrai urdinetan aurkitzen dira eta gaixotasun kardiobaskularrak dituzten pertsonetan bihotzeko arazoaren prebentzioan lagungarri izan daitezkeen ustea dago. Baita ere, "arthritis reumatoide" delako gaixotasunean, artikulazioetako mina arintzen lagungarri izan daiteke.

Gai hauen inguruan lan egiten duten ikertzaileen ustez, kasu askotan, elikagai desberdinak batera kontsumitzean organismoak nutriente horiek xurgatzeko ahalmena handitu egiten da. Adibidez, espinaka eta azkenarioetan aurkitzen den beta-karotenoa (beste antioxidatzaile bat), errazago eta azkarrago xurgatzen da koipeekin batera hartzen bada. Honekin ere, berriz, elikadura askotariko batek abantaila asko ematen dizkigula ikus dezakegu.

gogorak eskorbutu gaixotasuna sortzen du. Bitamina honen eguneroko gomendioak askoz altuagoak dira erretzaileen kasuan, noski, hauengan estres oxidatibo askoz altuagoa delako. Orokorrean, fruitu eta barazkietan topatzen da, baina kopurua oso aldakorra izan daiteke espezie eta barietatearen arabera. C bitamina hau hobe da beti elikagaien bitartez hartzea, beste nutriente asko ere iritsiko zaizkigulako berarekin batera, zuntza eta mikromineraletan.

Hona hemen zenbait super-elikagai horien adibideak:  
-Erremolatxa: bihotzerako osasuntsu den super-elikagai bezala ezagutzen da. Dirudie-nez, bere nitrato kopuru altuak gure organismoan oxido nitrikoan bihurtzen dira eta honek arteria-tentsioa eta odolaren koagulatzen tendentzia murrizten laguntzen omen du.

-Kakaoa: flabonoide izeneko konposatu batzuk ditu eta badi-rudi hauek odol hodian elastikotasuna handitu eta arteria ten-

# “Bihotza, burua, eskuak, sentitu, pentsatu...Ahora!”

Pirritx, Porrotx eta Marimotots KMK13ren baitan “Sentitu, pentsatu, ekin!” ikuskizuna eskainiko dute datorren martxoaren 16an Leidorren. Bi saio ospatuko dira; bata goizez, 12.00tan eta bestea arratsaldez 17.00etan. Egun guztian zehar ordea ez da sorpresarik faltako! Gure galderei erantzuteko tartea ere izan dute pailazo ezagunek.

Erredakzioa

Aurtengo Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia berezia da, KMK13ren baitan kokatzen baita.

Bai, aurtengoa urte berezia da arrazoi askogatik: batetik, pailazo taldea bere 25. urteurrena ospatzen ari delako. Asko dira sudur gorria eta zapata handiak soinean igaro ditugun urteak, eta are gehiago elkarrekin bizitako abenturak, herriz herri, irriz irri. Bestalde, Tolosak ere, KMK13ren baitan, ospakizun urtea du, 2013ko urriak 6ra bitarte, orotariko ekimen, jaialdi eta kontzertu eta abarrez betetako egitaraua baita gure herrian, guztiona, guztiontzat.

AHORA leloarekin bat egingo al dute Euskal Herriko pailazorik famatuenean?

Bai noski! Bihotza, burua, eskuak, sentitu, pentsatu...AHORA!

Larunbateko festa 10.30ean Triangulo plazan hasiko da eta ume zein gurasoei saio bietara mozorrotuta azaltzea eskatu zaie. Inauteriarik presente izango al dira?

Pailazo taldeko kideontzat urte osoa inauteria da, baina Tolosarre ere aitzakia gutxi behar dute festarako! Egun horretan goizean goizetik Lasarte-Oriako Dinbi Banda batukadako lagunek eta



Bonberenea txarangak alaituko dituzte Triangulo plaza eta inguruak. Kazkabarra taldeko kideak eta Laskorain ikastolako ikasle ohiak ere hantxe izango dira festan eta antolaketan parte hartuz. Trianguloan puzgarri bat, tailerrak, txorizo pintxoak... izango dira arratsaldeko ordu bata ingurura arte. Kalejiran joango gara Leidor Antzokira eta 12.00etan saio bat eskainiko dugu. Beste saioa arratsaldeko 17.00etan izango da.

Saioak grabatu asmo ditugunez eta Tolosako kaleak kolorez bete nahi ditugunez, orain gutxi armairuan gordetako txilabak, txanoak eta abarrak egun batez berriro ere soinean jantzi eta festara gonbidatzen zaituztegu.

Zer abentura biziko dute etxeko gaztetxoek “Sentitu, pentsatu, ekin!” ikuskizunarekin?

Ospakizun urtea dugu, agertokiz kanpo ez ezik, baita oholtza gainean ere. Izan ere, pailazoon amona Josefinak 100 urte beteko baititu! Pirritxen, Porrotxen, Mari Mototsen eta Pupu eta Loreren eskuetako hatzak zein oinetako behatzak ere behar dira halako zenbaki potoloa zenbatu eta osatzeko! Pailazoak eta lagunak amonaren baserrira joango gara amona eta jada birramona ere badenarekin festa egitera. Zaharra bezain polita, argia eta irudimentsua da amona. Denek zoriendu nahi dute Josefina maitagarria. Bada norbait, ordea, festa zapuztu nahi duena, eta pailazoen jarduna oztopatzen saiatuko dena eten gabe. Lortuko ote du? Ala maitasuna eta alaitasuna gailenduko ote dira azkenik? Zatoz gurekin batera amona Josefinari zorianak zuri abestera!

Ospakizun urtea da. 25 urte lehenengo sudur gorriak eta zapata handiak jantzi zenituztela... Nola-ko ibilbidea izan da?

Asko dira euskara eta alaitasuna zabaltzeko ahaleginean emandako urteak, eta gehiago Euskal

Herriko lagunekin batera bizi izan ditugun abenturak, elkarrekin partekatutako irriak, malkoak, muxuak eta besarkadak. Ikuskizun xume batekin hasi ginen gure jaioterrian, Lasarte-Orian. Kanean eta eskolatan euskara oso gutxi entzuten zelako, pailazoen emanaldia haurren artean gure hizkuntza modu alaian zabaltzeko aukera polita zela iritzita. Poliki-poliki, euskaraz ongi pasatzeko helburuari haurrentzat eta familientzat balio hezigarriak zabaltzeko ahalegina gehitu genion. Orain dela bi urte, Berria eta Elkar argitaletxearekin batera, Irrien Lagunak kluba sortu genuen. Urte hauetan guztietan, taldearen kultur emaria oso zabala izan da. Ugariak dira hainbat elkarterekin egindako elkarlanak ere. Pailazo taldearen helburu nagusia, Euskal Herrian euskaraz alai bizitzeko aukera egi bihurtzea da, eta ez ditugu zapata erantziko, harik eta guztion artean Euskal Herria Euskal Irri bihurtu arte.

KMK13 egitasmoak zer utziko dio Tolosari?

Denon artean irribarre polit bat margotuko diogu gure herriari, gure AHO(R)Ari, katxiporreta! ☺

## Kmk'13: eskerrik minenak, ahora!

Hala, festa-giroak sortu ohi duen zalapartaren erdian, hor izan dira abian jarritako bi ekimenak: tonbola eta jatetxea. Biak ala biak, ezin esan gabe utzi, laguntzaile eta boluntario askoren ekimen, borondate eta lanari esker atera ditugu aurrera. Bihoaz hitz hauek gure eskerrik minenaren adierazletzat, nola edo hala, bi jarduera horietan partaide izan zareten guztiontzat.

Jakin badakigu horietariko zenbait bidean ahaztuta geratuko zaizkigula, barkatuko ahal diguzue! Alabaina, hona hemen ondo irabazitako eskertzea berezia ikastolaren proiektuan buru-belarri inplikatu zaretenoi.

- Tolosako eta Irurako Udalei, lokala eta plataforma uzteagatik, hurrenez hurren.
- Garikano Toldeak enpresari, euria goien behean ari zuen horretan, estalki sendoa uzteagatik.
- Arramele aroztegia eta Tarte enpresetako langileei, euren eza-gutza profesionala tarteko izan ezean, ezinezkoa izango zitzailagulako jatetxea abian jartzea.
- Ikastolako guraso, Artezkaritza Kontseiluko partaide eta ikasle eta irakasle ohiak, egungoei, eta parte hartu duzuen guztiei, ilusioa, umorea eta lana, aitzakiarik gabe, eskaintzeko gai izateagatik.
- Horiek guztiak alferrik ariko ziratekeen, ordea, Tolosako herriak berak ikastolaren proiektuan inplikatzeko borondatearik izan ez balu: gure eskerrik minenak tonbolara eta tabernara hurbildu zareten guztioi, zuen par-

taidetzarik gabe, alferrikako bi ekimen izango ziratekeelako. Bihotzetik AHORA!, mila esker guztioi.

Hasi baino ez gara egin

Kilometroak 13 eguna urrutitxo geratzen zaigu oraindik, baina, AHORA! helburua beteko bada, ezin da egun bakarreko ospakizuna izan. Horrela, urte osoan zehar Tolosa eta inguruan nabarmenduko den haize-bolara izan dadin, laster izango ditugu hitzordu berriak: jasoko duzue garaiz horien berri.

Jakina, horietan guztietan laguntzaileak beharko ditugu. Baldin eta oraindik izenik eman gabe bazaudete, eta urtean zehar edota Kilometroak egunean berean esku bat bota nahi badiguzue, zoazte [www.kilometroak.net](http://www.kilometroak.net) gunera; bertan duzue izena emateko aukera. Guztion laguntza beharrezkoa izango dugu.

Gure berri izateko edota antolatzeko ditugun ekitaldien jakinaren gainen izateko, berriz, hor dituzue abian jarri ditugun sare sozialak:

Facebook [kmk13tolosa](https://www.facebook.com/kmk13tolosa)  
Twitter [@kmk13tolosa](https://twitter.com/kmk13tolosa)  
Flickr [/kilometroak2013](https://www.flickr.com/photos/kilometroak2013/)  
Youtube [kilometroak2013](https://www.youtube.com/channel/UCk13tolosa)

AHORA produktuak

Kultur ekitaldiekin batera, urte guztian zabalik izango da Kilometroak denda, Korreo kalea, 7an. Bertan aurkituko dituzue salgai AHORA kanta, arropa eta gainontzeko produktu berriak.

Azkenik, udaberriaren atarian



Unai Igartua  
KMK13ko koordinatzailea

Joan ziren Inauteriak, baina gure artean dirau oraindik, aurre-prestakuntzan eta jai-egun horietan bertan, elkarrekin bizi izan ditugun uneek eragindako bizi-pozak. Izan ere, Laskorain ikastolaren proiektuan murgilduta gaudenok, egun horiek, aurten era desberdinez bizi izan ditugu. Inauteri-egun huts bezala ez baino, AHORA! leloak laburtzen duen KMK'13 ekitaldiaren aldeko aukera bezala.

gauden honetan, Lilatoirako kirol nikiak merkealdian daude eta baita neguko arropa berezia ere. Laster sartuko da arropa berria. ☺

# hitzordduak

Martxoaren 8tik 22ra bitarteko

## irakurri entzun ikusi

Urak dakarrena  
Toti Martinez de Lezea

Kontakizunez kontakizun, baztertirik eta ahazturik, baina aldi berean hain presente egon diren euskal kostaldeko emakumeen memoria berreskuratzen du *Urak dakarrena* honek. Elkarrekin loturarik ez duten fikziozko hogeita hamabost kondairak osatzen dute liburua. Baionatik hasi eta Muskizera, ostalariak, esklaboak, kontrabandistak, enpresariak, sendalariak edo batelariak, denetik dago.

Deserriko kantak  
Eñaut Elorrieta

Eñaut Elorrieta kantariaren bakarkako lehen lanak "Deserriko kantak" izenburuarekin ikusiko du argia datorren maiatzaren hasieran. Deserriari ertz guztietatik begiratzen dio Eñaut Elorrietak. Horretarako, berez gain, hainbat idazle eta poetaren lumaz baliatu da.

Blakie eta Kanuto  
Zuzendaria: Francis Nielsen  
Zuzendari artistikoa: Ivan Oneka

3D estereoskopikoan egindako lehenengo euskal film luzea. Filmaren istorioa familia artean gozatzeko egiten diren horietako bat da: Blackie, ilargira joatearekin tematuta dabilen ardi beltza da. Kanuto berriz, Blackierekin itsututa dagoen artzain txakurra, kohetearen kontua entzun ere egin nahi ez duena. Bidaiari ekingo diote, eta jakina, bidean beste lagun askorekin topo egingo dute.

## Emakumeen Nazioarteko Eguna

**Tolosa. Hau ez da kasualitatea.** Martxoak 8, ostirala. Ainhoa Agirreazaldegia, Alaia Martin, Miren Amuriza eta Uxue Alberdi. Leidor. 20.30

**Anoeta. Bertso afaria musikatua.** Eneritz Arzallus eta Oskar Estanga. Martxoak 8, ostirala. 25 euro. Anoeta, Jubilatuen Egoitza. 20.30

**Abaltzisketa.** Herriko emakumeen bazkaria. Martxoak 8, ostirala. Abaltzisketa, Larriz Gain jatetxea. 13.30

**Alegia.** Martxoak 8, ostirala. 20.00etan Emakumeen Nazioarteko Kontzentrazioa eta ondoren bertso-afaria Oihana Iguaran eta Amaia Agirre-ekin

**Berastegi.** Martxoak 8, ostirala. Arratsaldean emakumeen arteko herri kirolak: lokots-biltzea, txingak, zaku-karrera, soka-tira... Ondoren hitzaldia eta gauean afaria Basurde elkartearen

**Bidegoian.** I. Berdintasun Eguna. Martxoak 8, ostirala. Nesken pala txapelketa, pintxo potea, berdintasun jokoak

**Alkiza.** Afaria. Martxoak 9, larunbata. Alkizako Ostatuan. Izena emateko: 943693930

**Tolosa.** Martxoak 13, asteazkena. "ni, Vera" liburua-aren aurkezpena eta jarraian "Emakumeak eta eromena, garrasi isilak" hitzaldia. Itsaso Martinen eskutik. Aranburu

Jauregia. 19.00

**Tolosa.** Martxoak 15, ostirala. Emakume Gazteen Kontzertua. Garazi Egiguren, Garazi Esnaola, Marta Olea, Eider Garcia eta Mor-More. Aranburu Jauregia, 19.00

**Tolosa.** Martxoak 19, asteartea. "Bertsolaritza: begirada feminista bat". Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegia. Aranburu Jauregia, 19.00

**Tolosa.** Martxoak 21, osteguna. "Krisia emakumeen ikuspegitik". Nekane Juradoren eskutik. Aranburu Jauregia, 19.00

## Erakusketa

**Mariona Masgrau: bidaia bat txotxongiloen mundura.** Martxoaren 10a arte. Tolosa, Topic.

**Salam, beste kultura batzuetara irekitako leihoa.** Martxoaren 30a arte. Tolosa, Aranburu Jauregia. Tolosaldea Garatzeneko Migrazioa sailak antolatuta.

## Zinea

**Blakie eta kanuto.** Martxoak 10, igandea. Haur zinea. Tolosa, Leidor. 17.00

## Jardunaldiak

**Mendi Tour 2013.** Martxoak 12 eta 13, asteartea eta asteazkena. Tolosa, Leidor. 19.30

**Amalur Jardunaldiak.** Martxoak 20-22. Tolosa.

## Aurkezpena

**Argazki eta dvd aurkezpena.** Martxoak 14, osteguna. Aitzol eta Euskal Pizkundearen ekimenaren barruan, Aranzadik prestatu duen lanaren aurkezpena. Tolosa, Kultur Etxea. 18.30

## Kontzertua

**Hiru eleak: Lizardi, Lauaxeta, Lete.** Martxoak 15, ostirala. Antton Valverde eta Anjel Lertxundi. Tolosa, Topic. 20.30

**Zuloak + Surfing Kaos.** Martxoak 15, ostirala. Alegia, Gaztetxea. 22.30

Tolosako Musika Bandaren kontzertua. Martxoak 16, larunbata. Tolosa, Uzturre gerontologikoa. 18.00

## Txotxongi-loak

**Blue Bird.** Martxoak 16, larunbata. Anita Maravillas. Tolosa, Topic. 18.30

## Pailazo ikuskizuna

**Sentitu, pentsatu, ekin!** Martxoak 16, larunbata. Pirritx, Porrotx eta Marimotots. KMK 2013. Tolosa, Leidor. 16.30 eta 18.30

## Mendizale-tasuna

**Candanchunera irteera.** Martxoak 8-10. Oargi Mendi

Elkarteak antolatuta. Izena emateko: info@oargi.org edo 688698642

**Astigarraga-Eskax.** Martxoak 17, igandea. Lapoblación 1245 m. Izena emateko: 943 652 789 edo alpinouzturre@hotmail.com. Antolatzailea: Alpino Uzturre

## Tailerra

**Kakorraz lan tailerra.** Martxoak 18, astelehena. Amañilik, Alkizako Emakumeen Elkarteak antolatuta. Izena emateko: amanili.alkiza@gmail.com. Alkiza, Don Juarena etxea. 16.00

## Dantza

**Arte-An.** Martxoak 22, ostirala. Dantzaz. Tolosa, Leidor. 20.30

## Ipuin Txokoa

Haur animazioa Irurako Liburutegian. Martxoak 21, osteguna. Irura, Liburutegia.

Ipuin Txokoa Haur Liburutegian. Martxoak 22, ostirala. Tolosa, Haur Liburutegia.

## Gazteak

Sexualitate aholkularitza. Martxoak 15, ostirala. Saioa Maider Altuna, Psikologoak dinamizatuko du. Albiztur herriko gazteentzat. Albiztur, 18.00

## langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbidek diruz lagundua

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Fluordun hoztaileen manipulazaila ikastaro osagarria	2013.03.11	24
FAGOR CNC fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa	2013.03.11	70
CAD 2D (Autocad hastapena)	2013.03.11	40
Panel operadoreen programazioa (SACADA WinCC Flexible)	2013.04.08	40
Emakume-lidergoia: emakume-talentua kudeatzeko gakoak	2013.04.12	5
Instalazio frigorifikoaren konfigurazioa eta kalkulua	2013.04.22	40
Automatismo hidrauliko eta elektrohidraulikoak	2013.04.22	30
Datu baseen lanketa (Acces oinarritzkoa)	2013.04.24	50

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?  
Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora.  
Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa  
Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com  
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com  
www.ikastn.com



## Goardiako farmaziak

Ostirala, 8 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa	Asteazkena, 13 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Astelehena, 18 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
Larunbata, 9 Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa	Osteguna, 14 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa	Asteartea, 19 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra
Igandea, 10 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra	Ostirala, 15 Iturrioz, I (Euskal Herria, 3) Ibarra	Asteazkena, 20 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa
Astelehena, 11 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra	Larunbata, 16 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa	Osteguna, 21 Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa
Asteartea, 12 Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa	Igandea, 17 Etxebeste Jesus M <sup>a</sup> (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Ostirala, 22 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228

**KEY-LAN**  
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea  
20400 Tolosa  
Mobila: 670 417 922  
Tel./Faxa: 943 650 313

**Rosa Etxarri Tomé**  
Doktorea

Elikadura eta dietetika

Nafarroa etorb. 14 A • 20400 Tolosa  
626 832 705  
rosatxarri@euskaltel.net

**TINDATEGIA**

**KATZ**

Laskorain kalea • TOLOSA  
Tel.: 943 652 618

**ARALAR KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA  
Tel.: 943 654 916

## Muxutruk

### Lana

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak barka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664 160268

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 688 642 137

• Klase partikularrak. Maila guztiak, talde txikituan. Esperientzia. (Kristina). 652 739808

### Etxebizitza

• 90m<sup>2</sup>-ko pisua salgai Anoetako solkore kalean. Egongela handia, hiru logela, sukaldia, komuna, trasteroa, ganbara ta bi balkoi eguzkitsu Uzturreko bistekin. 130.000€. 688887178

### Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Villabonan ileapaindegia salgai edo alokairuan. Sartzeko prest. 630 099092

### Erosketa

• Teutonia markako bigarren eskuko maxi cossia erosiko nuke. Interesatuak 635708540 zenbakira deitu mesedez. Mila esker



### aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Bizitza ikuspuntu berri batetik biziko duzu. Datozen egunetako esperientziak pazientzia, diplomazia eta iraunkortasuna eskatuko dizute. Hurrengo asteotan gainera zure autoestimua aldaketak jasango ditu.



### taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Irudimena lantzeko garai aproposa. Zure proposamenak onartuko dituzte. Proposamen horiek gainera interes handiko pertsonak ezagutzeko aukera eskainiko dizute. Taldekako jarduerak ere onurak ekarriko dizkizute.



### gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Axolagabea ez bazara, burua astintzen baduzu, aukera berriak eskainiko zaizkizu. Besteek zuregan jarritako esperantzek presioa eragingo dizute, baina jarrera baikorra erakutsiz gero, ez duzu inolako arazorik izango.



### cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Komunikaziorako duzun gaitasuna ustiatu beharko zenuke, ahalik eta esperientziarik aberasgarrienak bizi ahal izateko. Garai intelektual sakon batean murgilduko zara. Orain ikasitakoa, etorkizun hurbilean egi bihurtuko da.



### leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Datozen asteotan botere nahiaz egongo zara. Bikotearekin zenbait gai argitzeko unea iritsi da, hitzarmen berriak adosteko garaia. Fisikoki indartsu zaude baina emozioei dagokionez inoiz baino sentikorrago zaude.



### virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Bikote harremanak berriztuko dira. Arretaz ibili beharko zara, izan ere, independentziarako duzun joerak zure bikotearen beharrek talka egingo du. Baikorki pentsatuz gero, adimentsuki jokatzuz gero, edozer gauza lortu dezakezu.



### libra

Irailak 23-Urriak 22

Garrantzia duen horretan zure atentzioa fokotzen baduzu, eta zentzumen guztiak horretan lanean jartzen badituzu, zure helburuak gertuago izango dituzu. Lan kontuei dagokionez, baldintzak hobetu daitezkeen aurre hartu beharko duzu.



### scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Bizitzaz gozatuko duzu, baina arrisku egoera bat baino gehiago ere jasango duzu. Energiaz beterik zaude eta horrek baikortasuna ekarriko dizu. Garai mugitu, aktibo eta baikorra dator.



### sagitarious

Azaroak 23-Abenduak 21

Zure ideien konfiantza izan eta horri inbertitzeko unea iritsi zaizu. Energiaz gainezka zaude eta horrek ere arazoren bat sortuko dizu gertuen dituzunekin. Aldaketa eta eraberritzera bideratuta zaude.



### capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Zalantzak alboratzeko garaia heldu zaizu, zehaztasunez ekintzei heldu beharko diezu. Familian pisu gehiegi duzu eta horrek zure asmoak aurrera eramateko garai arazoak sortzen dizkizu.



### aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Helburuak nola edo hala eskuratu nahiko dituzu. Ekonomikoki baldintzak hobetu daitezkeen, zure indar eta gaitasun pertsonalaz baliatu beharko zara. Erabakiak indarretan jartzeko unea iritsi zaizu. Zuhurra izan zaitez.



### piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Lehentasanak sailkatzea ezinbestekoa da helburuak nola eskuratu aztertzeke garaietan. Komunikaziorako une apropos batean murgildurik zaude, garai ekintzailea da gainera. Hala ere, ideia eta zalantza gehiegi dituzu. Errealista izateko dagokizu orain.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN  
HASTEN DIREN AMETSAK

“NAZIOARTEKO PROIEKTU  
BATEN BITARTEZ  
IKASITAKO PRAKTIKAN  
JARTZEKO AUKERA IZAN  
DUT ZAMBIAN”.

Maite Aranzabal, Haur  
Hezkuntzako 4.mailako ikaslea.



PREST



MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

GOIERRI · MARTXOAK 16  
larunbata, 10:30

ARRASATE · MARTXOAK 21  
osteguna, 17:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI · MARTXOAK 9  
larunbata, 11:00

BIDASOA · MARTXOAK 16  
larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea  
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 16  
larunbata, 10:30

ARETO NAGUSIAN

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436  
WWW.MONDRAGON.EDU/PREST



Komikia: Joseba Antxustegiartek



# LARRE-GAIN

Bertako sagarrarekin  
egindakoa

Autobus zerbitzua  
Hernanitik!



Maiatzak 5 srte  
irekita!

Larre-Gain baserria, Ereñozu Auzoa. 20.120 Hernani  
Tel. 943 55 58 46 - Fax. 943 55 58 46

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN AMETSAK.

"GIZARTEAREN GARAPENEAN  
LAGUNTZEKO IKERLARI  
IZAN NAHI NUEN ETA  
UNIBERTSITATEAK ATEAK  
IREKI DIZKIT."

Alaitz Zabala, Biomaterialen  
ikerketan lerroko ikerlaria.



PREST

GOI ESKOLA  
POLITEKNIKO  
ESCUOLA  
POLITÉCNICA  
SUPERIOR

  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goierriko campusa

INGENIARITZA  
MARTXOAK 16 larunbata,  
10:30 **ORDIZIA**

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436

[WWW.MONDRAGON.EDU/PREST](http://WWW.MONDRAGON.EDU/PREST)

